

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure negozio-ereduak funtzionatzeko, hiru bazkidek osatzen dugun sareaz aparte, hornitzaile sarea dugu eta aliantzak ditugu beste enpresa batzuekin.

Hasiko gara bazkide bakoitzaren funtzioa eta rola zein izango den gure enpresan eta, ondoren, gure jarduerak aurrera eramateko ditugun itundutako enpresak.

Eneko Calderon: Medikuntza ikasketak egiten ari da eta jadanik Lehen Sorospen eta ur sorospen ikastaroa du, bihotz-biriketako berpizteko oinarrizko praktikak egin ditu. Edozein larrialdiren aurrean nola jokatzeko gaitasuna du. Horrez gain, finantziaketa arloa berak eramango du horretarako gaitasuna duelako.

Peru Herauld: SSCB0209 Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizatzaileria da eta Zuzendaria ere bada. Bere gaitasunak talderako jarduerak proposatzea, esku-hartzea eta zuzentzea lirateke, beste batzuen artean. Gainera salmentarako abilezia du eta marketinaz arduratuko da.

Mikel Urkidi: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasten ari da eta aditua da jarduera fisikoa sustatzen, taldeak dinamizatzen eta kiroltako diziplina bakoitzeko praktika egokia menperatzen. Horrez gain, beste enpresekin itunak egiteko, berrikusteko eta gainbegiratzearen arduraduna izango da.

Aliantzak beste enpresekin

- **Irteerak itsasontziz:**

Bermeo-Izaro-Ogoño-Mundaka. **Hegaluze** Itsas

Zerbitzuak, S.L.

<https://www.hegaluze.com/>



- **Surf eskolak:** Laidan, Lagan eta Mundakan surf klaseak . Gudari Caribe Surf

S.L. eta Surfin Mundaka, S.L.

[Mundaka clases de Surf, SUP & Yoga -
Surf camps - Gudari Caribe](#)

- **Stand Up Paddle (SUP):** Mundakatik Laidara.Gudari Caribe Surf S.L.
- **Kanoak.** Laida kanoak S.L.
- **Akanpadak.** ALOKLUB enpresak kanping dendak, lo-zakuak eta kanpinerako materialez hornitzen gaitu.
- **Mundakako Portuondoko Kanping-a.**

Bezeroak lo egiteko partzelak alokatzeko
[Camping & Bungalows Portuondo en Mundaka,
Bilbao \(Pais Vasco\) \(campingportuondo.com\)](#)

Honetaz aparte, **aktibako** bazkideak gara. Aktiba Euskadiko Turismo Aktibo, Abentura eta Natur jardueren Enpresen Elkarte, legez 2004ko ekainaren 18an eratu zen irabazi asmorik gabeko erakunde modura, eta Eusko Jaurlaritzako Enpresa eta Sindikatu Elkargoen Erregistroan izena emanda dago, zenbakiarekin.

<https://aktiba.eus/eu/>



aktiba
euskadi

8/04